
Aitziber Aranberri Uranga
Elgoibarko alkategaia
Candidata a la alcaldía de Elgoibar
ehbildu
Maite duzun Elgoibar
EGINGO DUGU.

# Hobetzeko garaia da!



# EGINGO DUGU.

# ¡Es hora de mejorar!

Legealdi hau oso berezia izan da, Covid 19aren pandemiarekin hasi baikinen eta Ukrainako gerraren ondorioz sortutako egoerarekin amaituko baitugu.
Bizitza bera mehatxatzen duen krisi sistemiko globalaren bizkortze bat bizi izan dugu: krisi klimatikoa eta energetikoa, desberdintasun sozialen areagotzea, zaintzaren krisi sakona, zerbitzu publikoen degradazioa, gizarte-kohesioaren murrizketa, gazteak emantzipatzeko oztopo larriak...
Aro aldaketa bat da honako hau, konplexutasunez betetako aro bat, aldi berean aukera berriei ateak irekitzen dizkiena. Gero eta konplexuagoak diren eta, ondorioz, irtenbide konplexuak eskatzen dituzten errealitateen aurrean gaude.
Eta testuinguru horretan, elgoibartarrok mugarri garrantzitsu baten atarian gaude herriak etorkizunean hartuko duen norabidea erabakitzeko: maiatzaren 28ko udal hauteskundeak.
Bada garaia herri gisa ditugun gaitasunak eta aukerak neutralizatzen dituzten azterketa autokonplazienteak eta diskurtso paralizatzaileak alde batera uzteko. Erronka sozial eta ekonomikoei gure gaitasun komunitarioetatik aurre egiteko garaia da.
HOBETZEKO GARAIA DA!
Ez gara zerotik abiatzen, oinarri sendoak ditugu hurrengo orrietan aurkituko dituzun eta inoiz baino beharrezkoagoak diren egitasmoak gauzatzeko. Horrela demostratu dugu legealdian zehar eta honela jardun dugu gobernatzen ditugun udalerri guztietan. Esaten duguna egiten dugu eta egiten duguna esan. Herri gisa ditugun erronka handiei erantzuteko konpromisoa

Esta legislatura ha sido muy especial, ya que comenzamos con la pandemia de la Covid 19 y acabaremos con la situación creada a raíz de la guerra de Ucrania.
Hemos vivido una importante aceleración de la crisis sistémica global que amenaza la vida misma: crisis climática y energética, aumento de las desigualdades sociales, profunda crisis de los servicios destinados al cuidado, degradación de los servicios públicos, disminución de la cohesión social, graves obstáculos para la emancipación de los jóvenes...
Estamos ante un cambio de era, una era llena de complejidad que a la vez nos abre las puertas a nuevas posibilidades. Estamos ante realidades cada vez más complejas y que, en consecuencia, requieren soluciones complejas.
Y en este contexto, estamos a las puertas de un hito importante para decidir el rumbo que tomará nuestro pueblo en el futuro: las elecciones municipales del 28 de mayo.
Es hora de dejar de lado los análisis autocomplacientes y los discursos paralizantes que neutralizan nuestras capacidades y posibilidades como pueblo. Es hora de afrontar los retos sociales y económicos desde nuestras capacidades comunitarias.
¡ES HORA DE MEJORAR!
No partimos de cero, tenemos bases sólidas para llevar a cabo proyectos que encontrarás en estas páginas y que son más necesarios que nunca. Así lo hemos demostrado a lo largo de la legislatura y así hemos actuado en todos los municipios que gobernamos. Hacemos lo que decimos y decimos lo que hacemos. Tenemos el



# Gure taldea
# *Nuestro equipo*

@EHBilduElgoibar EHBilduElgoibar elgoibar@ehbildu.eu 618 680 940



1 Aitziber Aranberri Uranga
2 Iñaki Lazarobaster Badiola
3 Eneritz Azkue Basurko
4 Jorge Hernando Gaona
5 Nagore Cid Altzibar
6 Jose Luis Mulas Aljonilla
7 Jone Olaizola Oñederra
8 Andrea Etxaniz Arregi
9 Fermin Lazkano Perez
10 Joseba Osoro Iturbe
11 Ane Astiazaran Makatzaga
12 Jon Peli Uriguen Ansola
13 Elsa Sanchez Oñederra
14 Miguel Alvarez Leo
15 Irune Mugertza Arantzamendi
16 Jesus Mari Makazaga Eizagirre
17 Ikuska Barua Echeverria
18 Gerardo Otero Iglesias
19 Itziar Goñi Gabilondo
20 Jose Agustin Alonso Muguerza

EH Bilduren proiektua zabaltzen ari da, eta zuzeneko partaidetzak berebiziko garrantzia izango du hainbat erronkaren aurrean.
Gure hautagaiek, momentuaren garrantziaz jabeturik, aurrerapauso bat emateko konpromisoa hartu dute, elgoibartarren beharrei erantzuteko, esperientzia, gaztetasuna eta ilusioa uztartuz, herritarren bizitza hobetzeko zerbitzuak garatuz.

El proyecto de EH Bildu se amplía y la participación directa es clave en nuestra acción política.
Nuestra candidatura, consciente de la importancia del momento, ha dado un paso adelante para responder a las necesidades de los y las elgoibarresas. La lista que conjuga experiencia, juventud e ilusión para mejorar las vidas de la gente.

# Ibaia herritarren gozagarri bihurtuko dugu

ELGOIBAR ATSEGINAGOA ETA JASANGARRIAGOA IZATEKO HELBURUAREKIN, EH BILDUK DEBA IBAIA BIZIBERRITZEKO PROIEKTUA BULTZATUKO DU, IBAIA HERRIKO BIZI-DINAMIKAN TXERTATZEKO ETA BERE BALIO NATURALAK INDARTZEKO. HAU DA, ELGOIBAR ZEHARKATUKO DUEN INGURUGIRO-ARDATZ BERRIA SORTZEKO PROIEKTUA DUGU.

## DEBA IBAIA ERDIGUNERA EKARRIKO DUGU

Ibaia ez litzateke ubide hutsa izan behar. Ibai eder bat altxor handia da bere inguruan bizi direnentzako eta EH Bilduk Deba ibaia Elgoibarko erdigunera ekartzea proposatzen du.
Ederra eta aberasgarria litzateke ibaia eguneroko bizimoduan txertatzea, herria edertzeaz gain herritarren gozamenerako iturri ere bihurtzea. Horretarako, udal berria eratu ahala ibaiarentzako plan integrala abiatuko dugu bi helburu garbirekin:

• Herri barruko ibai zatia paseagarri bihurtzea, Maltzagatik datorren bidegorriari jarraipena eman eta Altzolarantz eraikiko dugunarekin lotuz, bertan aisialdirako guneak ipiniz.
• Hiri-eremutik kanpoko ibilbide osoa naturalizatu, landare, zuhaitz eta bazterrak berezko egoerara ekarriz eta mantenu programa bat garatuz.

## INTEGRAR EL RÍO EN NUESTRA VIDA

El río no debería ser un mero canal. Un río precioso es un gran tesoro para los que viven a su alrededor y EH Bildu propone traer el río Deba al centro de Elgoibar.
Incorporar el río a la vida cotidiana, además de embellecer el pueblo, lo convertirá en una fuente de disfrute de todas y todos. Para ello, en el nuevo Ayuntamiento EH Bildu propondrá el diseño de un plan integral para el río con dos objetivos claros:

• Hacer paseable, con zonas de esparcimiento y descanso, el tramo urbano del río, dando continuidad al bidegorri que viene desde Maltzaga y conectándolo con el que construiremos hacia Altzola.
• Naturalizar el recorrido fluvial fuera del ámbito urbano, asegurando que la vegetación, árboles y riberas mantengan un estado natural.



## LANDA EREMU BIZIGARRIAGOA

Ibai-ingurunea berritzeaz gain, lehentasuna emango diogun beste ingurumen-ardatz bat izango da landa eremuan herriarentzako lurrak erosteko politikari ekitea, bertako basoak handitzeko, mendi-bideak ugaritzeko eta Elgoibar bizigarriago baterako bidean aurrera egiteko.

## COMPRA DE PARCELAS RURALES

Junto a la renovación del entorno fluvial, otro eje ambiental al que daremos prioridad será el inicio de una política de compra de parcelas rurales, con el objetivo de ampliar los bosques autóctonos, aumentar las rutas de senderismo y avanzar en la construcción de una Elgoibar más habitable.

# *Sei proiektu zehatz herritarren bizitzak hobetzeko*



## Herritarrak udalgintzaren erdigunera ekarriko ditugu

Zerbaitek bereizten bagaitu, gure egiteko modua da: EH Bilduk gardentasunean eta parte hartzean oinarritutako kudeaketa eredua bultzatu nahi du, eta bultzatu izan dugu aukera izan dugun guztietan. Benetan uste dugu gizarteak erabakietan parte hartzeak berma dezakeela elgoibartar guztien interes eta beharrei behar bezala erantzutea.

Gardentasuna eta parte-hartzea printzipio eraginkorrak izan daitezen bi konpromiso hauek hartzen ditugu:

• Gure herri proiektua garatzeko beharrezkoak diren Foro sozioekonomikoa eta Adineko pertsonen kontseiluak sortzea.

• Alkateak, urtean behin gutxienez, auzo-batzarretan eta sektore-kontseiluetan parte hartzea.



## Zaintza sistema integrala, publikoa eta kalitatezkoa sustatuko dugu

Zainketak mendekotasun-harreman fisiko eta emozionalak ditu oinarrian, eta guztion bizitzaren zati handi bat bereganatzen du. Zaintza-sistema demokratizatzeko, horren eremu guztiak integratu eta zerbitzu horiek publikotasunera bideratu behar ditugu, adinekoen egoitza berriaren kudeaketa publifikatuz edo, egungo etxez etxeko udal zerbitzuaren kasuan, erabiltzaileen eta zaintzaileen beharrei erantzungo dien kooperatiba publikoa sortuz. Gure ongizate-maila zerbitzu publikoen kalitateari lotuta egonik, kalitatezko zerbitzuak behar ditugu, adreiluen gainetik. Beraz, gure anbulatorioko larrialdi-zerbitzuaren irekiera bultzatuko dugu.



## Udal zerga-sistema solidarioa eraikiko dugu

Elgoibar justu eta solidarioa nahi dugu. Familia asko inflazioa eta krisiaren eragina jasaten ari denean, zuzena da udal zergen printzipioa ekitatea izatea eta horregatik udal-zerga sistema berrituko dugu gutxien ahal duten familiak gutxien zergapetzeko.




## Gazteen emantzipazio-aukerak biderkatuko ditugu

Gazteen autonomia handitzeko, etxebizitzarako laguntzak indartu, orientazio zerbitzua sortu, kirol instalazioak erabiltzea erraztu eta kirol eta kultur elkarteekin ekintza berriak hitzartuko dira. Haur eta gazteentzako aurrekontua bikoiztu egingo dugu.



## Trantsizio energetikoan urrats sendoak emango ditugu

Kontsumo kolektiboa indibiduala baino efizienteagoa eta merkeagoa da. Energia-komunitateek energia erosi, auzoko bero-sistemak ipini eta berriztagarrien sorkuntza errazten dute. Udaletik lagunduko dugun estrategia izango da.



## Udal hezkuntza kontseilua sortuko dugu

Herriko hezkuntza komunitatea egituratuko duen kontseilua sortuko dugu, Erronka askori egin behar diegu aurre herri ireki eta barneratzailea eraikitzeko. Euskara, kultura eta hezkuntza dira eraikuntza horren ardatz nagusiak.

# *Seis proyectos para mejorar la vida de la gente*



## Vamos a situar a la ciudadanía en el centro de la política municipal

EH Bildu impulsará, como lo hemos hecho siempre que hemos tenido ocasión, un modelo de gestión basado en la transparencia y la participación. Creemos sinceramente que sólo desde la participación social se puede garantizar una adecuada respuesta a los intereses y necesidades de todas y todos los elgoibarreses.
Para que la transparencia y la participación sean principios efectivos asumimos estos dos compromisos:
• Crear un Foro socioeconómico y un Consejo de personas mayores necesarios para el desarrollo de nuestro proyecto de pueblo.
• La Alcaldesa participará, al menos una vez al año, en todas las asambleas vecinales y consejos sectoriales.




## Fomentaremos un sistema de cuidados integral, público y de calidad

Los cuidados se basan en una relación de dependencia física y emocional que abarca gran parte de nuestra vida. Democratizar el sistema de cuidados pasa por integrar los diferentes ámbitos del cuidado y dirigirlos a su publificación, como en el caso de la gestión de la nueva residencia de mayores o el actual servicio Etxez Etxe, a través de la creación de una cooperativa pública que responda a las necesidades de personas usuarias y cuidadoras. El nivel de bienestar va ligado a la calidad de los servicios públicos y una edificación por sí sola no los garantiza, por lo que impulsaremos la reapertura de nuestro servicio de urgencias.



## Construiremos un sistema fiscal municipal solidario

Muchas familias están sufriendo las consecuencias de la inflación y la crisis. Es justo que los impuestos municipales se rijan por la equidad y por eso replantearemos los tributos municipales para que las familias que menos pueden paguen menos.



## Impulsaremos la emancipación de los jóvenes

Para fomentar la autonomía de la juventud: más ayudas a la vivienda, crearemos un servicio de orientación, más fácil acceso a instalaciones deportivas y nuevas programaciones con asociaciones culturales y deportivas. Duplicaremos el presupuesto para niños y jóvenes.



## Daremos pasos firmes en la transición energética

El consumo colectivo es más eficiente y barato que el individual. Las comunidades energéticas hacen compras conjuntas, ponen sistemas de calefacción de barrio y generan energía renovable. Desde el Ayuntamiento apoyaremos esta estrategia.



## Crearemos el consejo municipal de educación

Crearemos un consejo que estructure la comunidad educativa del pueblo.
Nos enfrentaremos a muchos retos para construir de un pueblo abierto e inclusivo.
El euskera, la cultura y la educación son ejes fundamentales de esa construcción.



# Debabarrena 2023-2027

EGOERA SOZIOEKONOMIKOARI, ONGIZATEARI, MUGIKORTASUNARI ERANTZUTEKO ESKUALDE MAILAN PLAN INTEGRAL BAT BURUTUKO DUGU. BETI ERE, HERRIEN ARTEKO OREKAK INDARTUZ. HONETARAKO, ESKUALDE MAILAKO PROIEKTUAK SORTUKO DITUGU, UDALAK SARETUZ ETA DEBEGESA GARAPEN AGENTZIA INDARTUZ.

HERRITARREN BIZI KALITATEAK HOBETZEKO, LAN AUKERAK UGARITU, LANPOSTUEN KALITATEA HOBETU, INDUSTRIA INDARTU, LANERATZE AUKERAK HANDITU ETA MUGIKORTASUN, ZAINTZA ETA HIRIGINTZAREN INGURUKO PROIEKTUAK AURRERA ERAMANGO DITUGU.

## Herritar ororen bizi kalitatea bermatu eta gaur egungo erronka sozio ekonomiko eta energetikoei erantzuteko anbizioa dugu

Debabarrenan, behar ekonomikoak, sozialak, ingurugirokoak edota mugikortasunari logurikoak baldintzatzen dute eskualdeko garapena eta ongizatea. Eskualdeko egitura ekonomikoak industrian du bere indargunea, beraz, indarguneak sendotu eta oker gauden arloetan hobekuntzak eragingo ditugu.

Hobekuntza hauetara bidean, aldaketak eragin behar ditugu Gipuzkoako politikan eta baita eskualdekoan. EH Bildutik hainbat proposamen aurkeztu ditugu ondorengo ildoetan: berrindustrializazioa, kalitateko enplegua eta aukera berdintasuna sustatzeko; hirigintza zahar-berritzeko; turismo eskaintza hobetzeko; eredu energetikoa aldatzeko; eskualdeko ingurugiro kalitatea hobetzeko, zaintza sistema integral bat ezartzeko eta mugikortasuna hobetzeko.

Honetarako, lehentasunezkoa izango da Debegesa (garapen agentzia publikoa) indartzea. Pobreziari aurre egiteko, lan aukerak ugaritzeko, lanpostuen kalitatea hobetzeko eta bizi kalitatea goratuko luketen proiektuak garatzeko. (959/981)

*Debabarrenako bizi kalitatea hobetzeko udalen inplikazioa handitu, bestelako erakunde publikoekin harremanak indartu eta enpresa, eragile eta herritarrekin elkarlana indartzera goaz*

En Debabarrena, el desarrollo y el bienestar comarcal están condicionados por las necesidades económicas, sociales, ambientales y de movilidad. Nuestra estructura económica tiene su punto fuerte en la industria, así que consolidaremos sus fortalezas e impulsaremos mejoras en las áreas más deficientes.

Será indispensable generar cambios en las políticas de Gipuzkoa y también en la comarcal. Desde EH Bildu hemos presentado sendas propuestas para la reindustrialización, generación de empleo de calidad y la igualdad de oportunidades; la regeneración urbanística; la mejora de la oferta turística; el cambio del modelo energético; la mejora de la calidad ambiental de la comarca; la implantación de un sistema integral de cuidados y la mejora de la movilidad.

Para ello, será prioritario reforzar Debegesa. Para hacer frente a la pobreza, aumentar las oportunidades laborales, mejorar la calidad de los puestos de trabajo y desarrollar proyectos que eleven la calidad de vida.



## Mugikortasuna indartzeko plan integrala

• Eskualdearen baitako mugikortasuna hobetzerako goaz, Donosti aldearekin eta Debagoienarekin lotura indartuz.
• Ermua-Deba tren zerbitzua 10-15 minutuko maiztasunaz jarri.
• Deba eta Donostia arteko konexioa hobetu trenen maiztasuna areagotuz.
• Maltzagan gune intermodala eraiki. Tren geltokia berreskuratuz, autobus geltoki egokiarekin eta autoentzat zein bizikletentzat aparkalekuekin.
• Eibarren gune intermodala eraiki. Trenaren geraleku nagusian autobus estazioa integratuz eta disuasio-aparkalekua eraikiz hiri barruko trafiko zirkulazioa murriztuz.
• Elgoibarko Arriagan tren geltoki berria eraiki.
• Deba-Elgoibar, Soraluze-Maltzaga eta Ermua-Eibar bidegorriak garatu.
• Industria guneetara garraio zerbitzu hobekuntzak aztertu.

## Plan integral para reforzar la movilidad

• Mejoraremos la movilidad dentro de la comarca, reforzando la unión con Donostialdea y Debagoiena.
• Implantaremos un servicio de tren Ermua-Deba con frecuencia cada 10-15 minutos
• Mejoraremos la conexión Deba-Donostia en tren, ampliando su frecuencia
• Construiremos una zona intermodal en Maltzaga. Recuperaremos la estación de tren, con una adecuada estación de autobuses y aparcamientos para coches y bicicletas.
• Construiremos una zona intermodal en Eibar. Integrando la estación de autobuses en la principal estación de tren, añadiendo un aparcamiento disuasorio para disminuir así, el tráfico rodado en el caso urbano.
• Construiremos una nueva estación de tren en Arriaga en Elgoibar
• Desarrollaremos los bidegorris Deba-Elgoibar, Soraluze-Maltzaga y Ermua-Eibar
• Analizaremos las mejoras a realizar en los servicios de transporte a las zonas industriales



## Eskualderako industria politika berrirako proposamena

Jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko, tokiko baliabideak globalki ustiatuko dituen estrategia behar da. Estrategiaren erdigunean, hazkundean diren sektoreak identifikatzea, Industriarentzako zerbitzu aurreratuen arloa garatzea (gauzen interneta (loT), big data, ikusmen artifiziala, errealitate handitua, sentsorika, robotika, adimen artifiziala) eta formazio aurreratua eskaintzea egongo litzateke.

Hau guztia egin ahal izateko, Udalen inplikazioa handitu eta bestelako eragileekin (Tekniker, Ideko, IMH, Eibarko ingeniaritza eskola, Armeria Eskola…) elkarlana indartuko dugu.

## Propuesta de nueva política industrial comarcal

Para fomentar la actividad económica y el empleo necesitamos una estrategia que saque provecho globalmente a los recursos locales. La estrategia se centraría en identificar los sectores en crecimiento, desarrollar el área de servicios avanzados para la Industria (loT, big data, visión artificial, realidad aumentada, sensórica, robótica, inteligencia artificial) y ofrecer formación avanzada.

Para ello, aumentaremos la implicación de los Ayuntamientos y reforzaremos la colaboración con otros agentes (Tekniker, Ideko, IMH, Escuela de Ingeniería de Eibar, Escuela Armería, etc.).

# Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



**Maddalen Iriarte Okiñena**

Gipuzkoako Ahaldun Nagusirako hautagaia

Candidata a Diputada General de Gipuzkoa

*Aprovechemos todas las posiblidades que tiene Gipuzkoa, para que nadie se quede atrás.*

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.

*Mejorar para avanzar*

ehbildu

@MaddalenIriarte
Maddalen Iriarte Okiñena
maddaleniriarteokinena
ehbildu.eus